

# Berrigara

BERGARA / Egubakoitza / 2005eko ekainaren 17a

631. zenbakia

**JAIK/** Ekainaren 20tik 27ra egin ahal izango dira eskaerak kultura etxean

## San Martzialerako mahaiak astelehenetik eskuragarri

EDU MENDIBIL

Astelehenetik aurrera eskatu ahal izango dira uztailearen 3an ospatuko den San Martzialgo erromeriarako mahaiak. Ekainaren 20tik 27ra bitartean eskatu ahal izango dira mahaiak eta aulkiak, Errotalde jauregian. Iaz bezala, fidantza ordaindu beharko da.

Mahai bakoitzaren alokairuak 20 euro balio du eta eskatzaile bakoitzeko 100 euroko fidantza jarri beharko da. Udalak aditza eman duenez, eskatzaile bakoitzak ezingo du bost mahai baino gehiago eskatu. Esan, bezala,

eskaerak ekainaren 20tik 27ra (biak barne) egin ahal izango dira kultura etxean, 17:00etatik 20:00etara. Erromeriaren bezperan, uztailearen 2an, jaso beharko dira mahaiak eta aulkiak. Alokaturako materiala 19:00etatik 21:30ak arte entregatu beharko da uztailearen 3an eta egoera txarrean entregatzen dutenek fidantza galduko dute.

**HERRI JOLASERAKO LAGUNTAILEAK** Bestalde, uztailearen 3an, arratsaldez egingo diren herri jolasak antolatu eta aurrera eramateko laguntzaileak behar ditu Udalak. Soka tira eta txinga eramatea antolatzen laguntzeko gertu daudenei ekainaren 27an, 17:00etan,

kultur etxean egingo den bilera joateko dei egiten zaie. Bilerara joaterik ez dutenek 943 77 91 59 telefonora dei dezakete.

### TXOSNA ETA TABERNA

San Martzialgo erromeria egunean taberna eta txosnaren arduraz izateko interesa duten elkar-teenek ekainaren 20ra arte daukate eskaera aurkezteko aukera.


### TXISTULARIAK ETA ORKESTRA

Eguenean, San Juan bezperan, Udal Txistularien kalejira izango da, 20:00etan. Bergarako Orkestrak, berriz, emanaldia egingo du hurrengo egubakoitzean, hilaren 24an, San Pedro parrokian, 20:00etan.



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Irudian, iazko jaitsiera. Herri jolasak antolatzeko laguntzaileak behar dituzte aurten.



### Udan irakurtzeko gonbidapena

Bergarako Udal Liburutegiak *Biblioporrak* izeneko gidatxoak kaleratu du inguruko herrietako liburutegiekin lankidetzan. Uda irakurketarako sasoi aproposa dela eta, adin ezberdineko irakurleei hainbat liburu gomendatzen diete liburutegiko arduradunek. Liburuekin batera, DVD eta CD eskaintza ere jaso dute. Besteak beste, azken nobedadeak ere eskuragarri daude.

### LABUR

#### Odol ateratzea egingo dute eguaztenean, Seminarioan, ohiko ordutegian

Odol Emaileen Elkarteak aditza eman duenez, odol ateratzea egingo dute eguaztenean, ekainaren 22an, Seminarioko lokalean, 18:30etik aurrera. Hurrengo odol ateratzeak uztailean egingo dituzte, hilaren 13an eta 27an hain zuzen.

#### Gaztetxearen 5. urteurrena ospatzeko azken ekitaldiak izango dira oraingo asteburuan

Gaztetxearen 5. urteurreneko ekitaldiekin jarraituz, gaur egubakoitza, *Mutazutani* antzezlanak izango da 22:00etan; bihar, zapatua, herri bazkaria izango da eta ondoren xakea eta *Barruti* magoaren saioa. Gauean, ska-reggae festa. Domekan urteurreneko ospakizunen balorazioa egingo dute, 17:00etan.

## disdira

ile apaindegia  
edertze gela

Masterreka 7  
BERGARA  
Tel.: 943 76 00 55

## TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza  
materialak

Telleria (Labegaraia)  
BERGARA  
Tel.: 943 76 27 93

## ezpeleta

Ostalaritzarako  
ehungintza

Ostalaritza eta  
egoitzetarako  
mahai-zapi eta  
industri-ehunak

San Lorenzo 1, Bergara  
Tf. 943 76 28 77  
Tel.: eta faxa: 943 76 17 09

## EDEL

### TAPIZ DENDA

Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak,  
koltzak, edredoak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

**ALBAITARIAK****ARTAZ KLINIKA (Lazpiur Roman)** Zurradero 6, behea. 943 76 70 67 / 607 48 71 19**ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albitari ofiziala)** 609 54 16 13**IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak)** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46**ANALISI KLINIKOAK****LABORRA Isabel** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06**BARNE MEDIKUNTZA****IRIGOIEN Victor** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06**DENTISTAK****AGIRRE HORTZ KLINIKA** Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23**ARAMBURU HORTZ KLINIKA** Telesforo Aranzadi 1. 943 76 02 46**ASTIAZARAN SOLOZABAL** Iparragirre 1, behea. 943 76 27 95**BERGARA HORTZ KLINIKA** Bidekurutzeta 36, behea. 943 76 05 77**GOROSABEL J. Alberto** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88**CAVIGLIA Silvana** S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54**IRIARTE Idoia** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65**SAINZ Ana** Herriko plaza 4, ANTZUOLA. 943 78 71 69**TRIPALDI Enrike** Justo Garate 1. 943 76 70 76**DIETISTAK****ALBERDI Mireia** Olanan etxea, Herriko plaza 3, ANTZUOLA

Ibargarai 44, BERGARA. 943 76 60 45 / 646 43 34 58

**ERREHABILITAZIO FISIKOA****LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74**FISIOTERAPEUTAK****ARZAK Miren** (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71**BASTERRETXEIA Maria** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71**UNZUETA Irene** San Martin Osasundegia. Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39**MASAILARIAK****AZPEITIA Irune** Ibargarai 44, behea. 943 76 73 43**CASANELLAS Jabier** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78**ETXEBERRIA Ana** Errekalde 6, behea. ANTZUOLA. 943 76 60 13**MEDIKUNTZA ESTETIKOA****BENITO Isabel** Bidekurutzeta 46, behea. 943 76 52 62**OTORRINOLARINGOLOGOA****IGARTUA ALMANDOZ Julian** Barrenkale 35-1 ezkerre. 943 76 70 91 630 653 202**PODOLOGOAK****IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA** Ikerleku Zeharbidea z/g. 943 76 07 84**AZPIAZU Arantzazu** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32**PSIKIATRA****GALLASTEGI Pablo** San Martin Plaza 2, 1-ekz. 943 76 26 64**PSIKOLOGOAK****PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatría, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80**URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13**ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76**YOGA****SAMADHI YOGA** Masterreka 13, behea. 943 76 11 38 / 639 235 753**BERGARAKO  
OSASUN GIDA**  
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.

**ERAKUSKETA/** Eduardo Arrillagaren argazki erakusketa zabalduko dute uztailaren 1ean

# Sokamuturra argazkitan Aroztegin, uztailean

EDU MENDIBIL

Eduardo Arrillaga argazkilaria-  
ren erakusketa izango da  
ikusgai Aroztegi aretoan  
uztailaren 1etik 24ra. Abdon  
Juaristi zenaren margo erakus-  
keta antologikoaren ondoren,  
Aroztegin egingo dute bigar-  
ren erakusketa izango da  
Arrillagarena.

Eduardo Arrillaga 1966an jaio zen  
Elgoibarren eta ibilbide luzea eta  
oparoa egin du argazkilaritzan.  
1987an hasi zen argazkilaritza ikas-  
ten Bartzelonan eta 1990etik hain-  
bat erakusketa egin ditu. Sariei  
dagokienez, iaz, esaterako, Espai-  
niako Argazkilaritza Herrikoia-  
ren Lehiaketan 2. saria jaso zuen eta  
Luis Valtueña Argazkilaritza  
Humanitarioaren Lehiaketan fina-  
lista izan zen. Era berean, Arrilla-  
gak hainbat komunikabidetan argi-  
tara eman ditu bere lanak.

## ZURI-BELTZEKO 34 ARGAZKI

Bergaran ikusgai izango den  
*Sokamuturra* izenburuko era-  
kusketa zuri-beltzeko 34 irudiz  
osatuta dago. Hamar bat urtez jar-  
dun zuen Arrillagak sokamutu-  
rreko argazkiak ateratzen, kasu  
gehienetan txekorregandik oso  
gertu. Jaietako tradizio hori jaso  
nahi izan du eta indar berezia  
duten argazkiak dira, sokamu-  
turean parte hartzen dutenen  
beldurra, sustoak eta jai giroa  
antzman daitezkeelarik. 1992-  
2001 bitarteko argazkiak dira.


Erakusketa uztailaren 24ra  
arte izango da zabalik eta soka-  
muturraren gaiarekin lotutako  
hitzaldia emango du Iñaki Azku-  
nek hilaren 15ean, Aroztegin ber-

tan. Aretoa maiatzaren 12an ire-  
ki zuten, Abdon Juaristiren era-  
kusketarekin. Arrillagarena,  
beraz, Aroztegin egingo duten  
bigarren erakusketa izango da.



Irudian, erakusketan ikusgai egongo den argazkietako bat.

EDUARDO ARRILLAGA



## 'Barruti'-ren magia Udal Euskaltegian

Alberto Elkoroiribe *Barrutik* magia ikuskizuna eskaini  
zuen aurrekoan Udal Euskaltegian, Zabalotegian. Eguraldi  
ona aprobetxatuz, gelaz kanpo egin zuen *Barrutik* emanal-  
dia eta ikasleen eta hauen seme-alabek ere haren trukuekin  
gozatzeko aukera izan zuten. Foku eta bestelako apaingar-  
ririk gabe, eguzkiaren argitan ikuslegoa txundituta utzi  
zuen bergarar magoak.

## LABUR

### San Joxepe elkarteak Ailara bailarara joateko irteera iragarri du hilaren 23rako

San Joxepe erretiratuen elkarteak hilaren 23an Ailara bailarara  
joateko irteera antolatu du. Izenematea erretiratuen egoitzan egin  
daiteke.

Bestalde, irailaren 26tik urriaren 2ra bitartean Girona bisita-  
tzeko irteera iragarri dute erretiratuek. Prezioa 360 euro inguru-  
koa da. Argibideak 943 76 30 09 telefonoan.

### 1955ean eta 1960an jaiotako bergararren ospakizunak hurrengo zapatuan, hilaren 25ean

1955ean jaiotako bergararrek afaria egingo dute ekainaren 25ean,  
Zabala jatetxean, 21:00etan. Izenematea (15 euro aurrez) Frontoi-  
ko tabernan edo Zabala jatetxean egin daiteke. Afari egunean fron-  
toian elkartuko dira, 20:00etan.

1960an jaiotakoek Zumelaga jatetxean afalduko dute egun  
berean. Izenematea, Kutxan (20 euro aurrez).

### Aranzadi Ikastolak ohiko batzar nagusia egingo du eguaztenean, UNEDeko aretoan

Aranzadi Ikastolak aditzera eman duenez, ohiko batzar nagusia  
izango da datorren asteazkenean, ekainak 22, UNEDeko areto naga-  
sian, 18:30ean. Bilerak irauten duen bitartean ume-zaintza zerbi-  
tzua egongo dela adierazi dute Aranzadiko arduradunek.

**GABILONDO**  
INMOBILIARIA

Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak,  
baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854  
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67

**ANTIA**

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09

**ÑANARRI**  
LAN BERTIKALAK

- PODAK, TEILATUAK,  
TXIMINIAK, KANALOIAK,  
BAJANTEAK, FATXADAK  
ETA PATIOAK.
- ANDAMIORIK GABEKO  
LANAK.

Tel.: 676 952 968  
680 641 401

**HIRU BIDE**  
JATETXEA-BENTA

Urteaga 9  
BERGARA  
Tf. 943 76 18 45

**OGIZUN**  
koop. elk.  
okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10  
BERGARA OÑATI  
943 76 45 53 943 78 24 13



PEDRI ZAFRA

Errotagain taldeko jokalariek, play-offeko finala irabaztearen eskuratutako trofeoarekin.

**ARETO FUTBOLA/** Ligako eta kopako irabazleen arteko norgehiagoka txapelketa agurtzeko

## Errotagain-All Blacks txapelketa partidua bihar

E.M.

Errotagain eta All Blacks areto futbol taldeak aurrez aurre izango dira bihar, zapatua, Labegarairetako kiroldegian, 17:00etan. Txapelketa arteko finalak amaiera emango dio aurtengo areto futbol txapelketari.

Errotagain izan dugu liga txapelketako irabazlea. Play-offeko finalean, Errotagainek 6-2 irabazi zion Arrasateko Pirulotarrak

taldeari. Txapelketa partetik, Aitor Antonek (hiru gol), Gari-koitx Altunak (bi gol) eta Jose Mari Romerok egin zituzten golak. Orain dela hiru urte irabazitako trofea eskuratu du Errotagainek.

### KOPA, ARRASATERA

Kopa Txapelketako finalean, berriz, Arrasateko bi talde izan ziren aurrez aurre. Pirulotarrak, hala ere, txapelketa irabazi

rekin konformatu behar izan zuen berriz. Uste baino errazago irabazi zion All Blacks taldeak, 8-3. Bi finalak egun berean jokatu behar izanaren nekea igarriko zuten Pirulotarrak taldekoek.

Esan bezala, bihar, zapatua, aurtengo txapelketa arteko norgehiagoka izango da, 17:00etan. Aurten partidu bakarra jokatu dute elkarren aurka: orduan, kopako finalerdietan, All Blacks 5-2 nagusitu zitzaion Errotagaini.

## Igerilari gaztetxoak Legazpin, Gasteizen eta Oreretan lehian



AMAIA ANDUEZA

Infantil mailako taldetik Irati Fernandez eta Urki Iburguren sailkatu ziren Gasteizerako.

E.M.

Bergara Igeri Elkarteko Irati Fernandez eta Urki Iburguren Euskadiko Eskola Arteko Txapelketa izan ziren, Gasteizen. Irati 7.a izan zen 100 eta 200 metroko bular estiloko probetan eta Urki 100 metroko bizkar estiloko proban 7.a izan zen eta 200 metrokoan 8.a.

Uztailaren 9an eta 10ean Euskadiko Txapelketa izango dira.

Bestalde, Gipuzkoako alebin mailako txapelketa, Oreretan, Jon Muxika 5.a geratu zen, Aitor Elizburu 15.a, Xabier Labaka 22.a izan genuen, Mikel Kortabarria 34.a eta Nerea Gonzalez 35.a. Txantxiku saria eta Lasarteko saria geratzen zaizkie orain.

## LABUR

### Leire Fernandez Gipuzkoako txapelketa mailan eta Beti Busti hirugarren taldeka

Leire Fernandez K-1eko piraguista bergararrak lehen postua eskuratu zuen Gipuzkoako Txapelketa, Irunen. Beti Busti taldeko hirugarren postua lortu zuen. Senior mailan, Roberto Puyk bigarren postua lortu zuen, Markel Agirre (3.a), Iraitz Artola (7.a) eta Eneko Iturrosperen (9.a) aurretik. Junior mailan, Markel Cestafe hirugarren, Ibon Etchezarreta 8. eta Martxel Alberdi 9. sailkatu ziren eta kadete mailan Iraitz Arizabaleta 11.a izan zen eta Mikel Alustiza 12. postuan geratu zen.

Bihar, zapatua, Beti-Bustiko piraguistek Euskadiko Txapelketa hartuko dute parte, Irunen, San Miguelen, 15:30ean hasita. Beti-Bustiko hamabi bat lagun lehiatuko dira han.

### Udaberriko Pilota Txapelketako finalak eta Deba Arroko gazte mailako finalerdia gaur

Gaur, egubakoitza, Udaberriko Txapelketako finalak jokatu dira Udal Pilotalekuan, 19:00etan. Benjamin B, benjamin A, alebin A, infantil B eta infantil A mailako bikotekako partiduak izango dira. Lau terdiaren barruan, Andoni Elorzak eta Ibon Berraondok banakako finala jokatu dute. Udaberriko Txapelketako finalen aurretik Eneko Muguruzak eta Jon Larrañagak gazte mailako Deba Arroko finalerdia izango dute Oñatiko bikotekaren aurka, 18:15ean.

### Honorio Agirregabiria Memoriala txirrindulari saria jokatu da zapatuan

Bihar, zapatua, Honorio Agirregabiria Memoriala jokatu da. San Antonioko txirrindularitza sariaren 69. ekitaldia izango da biharkoa eta lehen eta bigarren urteko kadete mailako txirrindulariak izango dira lehian.

Lasterketa 16:30ean hasiko da eta partaideek 70 kilometroko ibilbidea izango dute. Antolatzaileek egindako kalkuluen arabera, lasterketa 18:15ean amaituko da San Antonioko helmugan.

### Kadete mailako nesken futbol taldeak Urkiko txapelketa eskuratu zuen, Eibarri irabazita


Bergara KEko kadete mailako nesken taldeak Urkiko txapelketa irabazi zuen. Mikel Fernandezek zuzendutako taldeak Urkiri irabazi zion finalerdietan, eta finala Eibarren aurka izan zuten. Bana berdindu ondoren, penalti jaurtiketetan nagusitu ziren bergararrak. Aurten lortzen duten bigarren kopa da hau.

### Pol-Poleko beteranoak Huesca aldean

Pol-Pol Mendizale Taldeko beteranoek bi eguneko irteera egin zuten orain dela bi aste. Huescako Pirinioetan ibili zen herriko mendizale talde bat, 40 lagun inguru. Lehenbiziko egunean, zapatuan, Lizarako (Aragues del Puerto) aterpetxera joan eta handik Canfranerako ibilbidea egin zuten, sei ordu eta erdi inguruko ibilaldia eginda. Jacan igaro zuten zapatuko gaua eta domekan San Juan de la Peña inguruan ibili ziren, besteak beste San Salvador mendia zeharkatuta.

Hurrengo domekan, hilaren 26an, Cañon del Ebro parajera joango dira. Argibideak Pol-Polen, 943 76 48 51 zenbakian.





Jarduneko Trikiti Eskolakoek biharko festan hartuko dute parte.

BERRIGARA

**JAIK/** Kardantxa 4.0 taldeak alaituko du gaueko erromeria, Munibe plazan

## Bergarako Lehen Trikiti Festa ospatuko da zapatuan

E.M.

Bihar, zapatua, Bergarako Lehen Trikiti Festa ospatuko da. Herriko trikiti-zale batzuen ekimenez sortu da biharko Trikiti Festa. Antolatzaileek Bergarako Udalaren eta Jardun elkartearen laguntza izan dute jaia antolatzeko.

Eguerdian hasiko dira ospakizunak: Munibe-plazatik hasita kalejira izango da 12:00etan. Ondoren, 14:30ean, herri bazkaria egongo da Artatse elkartean. Antolatzaileek aditzera eman dutenez, 60 bat lagun elkartuko dira bazkaltzeko.

Arratsaldean, berriz, herriko trikitilariak emanaldia egingo dute Munibe plazan, 18:30ean, eta 20:00etan afari-merienda izango da Munibe plazan. Gauean, 21:00etan, kalejira egingo da berriro eta jaiari amaiera emateko Arrasateko Kardantxa 4.0 taldearekin erromeria izango da Munibe plazan, 22:30ean.

Biharko ospakizunak ordaintzen laguntzeko txartelak jarriko dituzte salgai. Zapatuan 11:00etatik 14:00etara txartelak eskuratzeko aukera egongo da San Martin plazan. Zozketa Munibe plazan egingo dute, afari-merienda orduan, 20:00ak aldera. Eusko Labeleko produktuen otzara zozketatuko dute antolatzaileek.

Jon Unamuno Jarduneko kultura dinamizatzaileak zera esan digu: "Bergaran badago trikitiarekiko zaletasuna, eta giro hori kalera atera nahi izan dugu, egingen den lana erakustea. Askotan

ezkutuan geratzen den lan hori herritarrei azaltzea da helburua. Jarduneko Trikiti Eskolakoekin batera, Elorrioko Eskolakoak etorriko dira zapatuan, besteak beste. Ea giro polita sortzen den eta jendeak jaiarekin bat egiten duen. Herritarren erantzuna ona bada, hurrengo urtean ere jaiari eustea da asmoa".

### DANTZA IKASTAROA BERGARAN

Bestalde, *Bergara dantzan* egitasmoaren barruan, dantza ikastaroa iragarri dute ekainaren 20tik uztailaren bukaerara bitartean. Aipatutako ikastaroa Juan txo Urbietaren zuzendaritzapean emango da. Eskolak astelehene eta eguaztenetan izango dira, Seminarioan, 19:00etan, eta erromerietarako dantzak landuko dira. Nahi duen edonork har dezake parte. Izenematea doan da, eta interesatuei ikastaroa hasten den egunean agindutako orduan joatea eskatzen zaie.

*Herriko trikiti-zaleek eta Jardun elkarteak antolatu dute biharko festa*

## LABUR

### Bearteko ikasleen margo erakusketa domekara arte ikusgai Errotaldeko aretoan

Bearteko ikasleen pintura erakusketa ikusgai dago Errotalde Jaurregiko aretoan, domekara arte. Rikardo Azkargortarekin ikasten diharduten 24 lagunek hartzen dute parte erakusketan. Zapatuan eta domekan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara izango da aretoa zabalik.

### Misfits, Dio, Anthrax eta The Queers taldeek joko dute datozen egunotan Jam aretoan

Hainbat kontzertu izango dira datozen egunotan Jamen: gaur, egubakoitza, Misfits taldeak joko du, 22:00etan (sarrerak 20 eurotan salgai); bihar, zapatua, 22:00etan Dioren emanaldia izango da (sarrerak 22 eurotan); domekan, hilaren 19an, Anthrax taldea izango dugu bisitari, 20:00etan (sarrerak 22 eurotan) eta egunean, hilaren 23an, The Queers taldeak joko du, 21:00etan (sarrerak, 10 euro).

### Azkaiter Peloxen emanaldia Getariako Gaztetape hondartzan, San Juan bezperan

Azkaiter Pelox bakarlariak emanaldia egingo du ekainaren 23an, San Juan bezperan, Getariako Gaztetape hondartzan.

Kantuo propioekin eta beste hainbat musikariren bertsioekin osatutako erreperatorioa eskainiko du Unai Azkaratek. Emanaldia 23:30ean hasiko da.

## APATXI. Ekaineko erantzunak

• Ezetz asmau Bergarako ze futbol-zelai eta ze auzoren izenetan agertzen dan "osin" berbia? Agorrosin eta Osintxu

• Zein egoeratan esango ziñuke esamolde bakoitza? Lotu letrak eta zenbakixak eta ia asmatzen dozun!

a) 8; b)7; c)1; d) 6; e)3; f) 4; g)2; h) 5

### Irabazleak

**1 saria:**  
Joseba Carnicero.  
7 urte.  
San Martin ikastetxea

**2 saria:**  
Nerea Olabarria.  
8 urte.  
Mariaren Lagundia

**3 saria:**  
Uxue Olaziregi.  
10 urte.  
Aranzadi Ikastola



Joseba Carnicero jaso du lehen saria.



**Irrintzi**  
kafetegia

Irala 3. BERGARA  
Tel.: 943 76 48 26

**Ganbara**

TABERNA

Heure erara  
ibiltzeko!

Irala z/g.  
BERGARA  
Tel.: 943 76 55 75

**FRONTOI**



TABERNA

Fraiskozuri z/g.  
BERGARA  
943 76 05 09

**GURIA**  
Taberna

Bidekurutzeta 5  
BERGARA  
943 76 20 34

**UREDERRA**  
ITURGINTZA

Iturgintza  
Berogintza.  
Aire egokitua  
Konponketa  
Salmenta

Arruriaga 11  
686 943 918

E, TXO!

**GRAFITI LEHIAKETA  
UZTAILEAN GETXON**

Euskal Herriko II. Grafiti lehiaketa Getxon egingo da uztailean Topaguneak, Euskara Elkarteen Erakundeak, antolatuta. Lehiaketan parte hartu nahi dutenek margotu nahiko luketen horma-irudiaren zirriborroa aurkeztu behar dute uztailearen 1a baino lehen. Ondoren, hamar lan aukeratuko dira eta uztailearen 16an elkarren artean lehiatuko dira. Zirriborroak honako helbidera bidali behar dira: Topagunea Euskara Elkarteen Federazioa Arlozabal kalea, 8 bis 1.C 48220 Abadiño (Bizkaia).

**GAZTEEN TOPAKETA  
MADRILEN**

Humanesjuve 2005 gazteen topaketak egingo dituzte ekainaren 24tik 26ra bitartean Madrilgo Humanes herrian. 18tik 30 urtera arteko gazteen dako izango dira jardunaldiok. Bertan jendea ezagutzeko aukera izango da jolas eta jai giroan. Topaketen gaineko informazio gehiago eskuratzeko eta izena emateko 91 6040109 telefonora deitu behar da. Plazak mugatuak direla jakinarazi dute antolatzaileek.

**DIRULAGUNTZAK GIZARTE  
ZERBITZUETAKO TALDEEI**

Gizarte zerbitzuen arloan lan egiten duten irabazi asmorik gabeko erakundeendako dirulaguntzak emango ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Elkarteen mugimenduei eusteko zein ekintza zehatzetarako izango dira laguntzak. Eskaera ekainaren 30a baino lehen egin behar da Foru Aldundiko Giza Eskubi-deetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Sailean. Informazio gehiago honako telefonon eskura daiteke: 943 11 26 69.

**GUREGAIK/ LEONARDO DA VINCI PROGRAMA**

# Miguel Altuna Institutuko bost ikaslek atzerrian egin dituzte praktikak

IRATI AGIRREAZALDEGI


**Ikasitakoa praktikan jarri behar izaten dute ikasleek lan munduan murgildu aurretik. Horretarako aukera eskaintzen diete ikastetxeek. Batzuek herriak bertan egiten dituzte praktikak, beste batzuek atzerriara jotzen dute.**

Badira urte batzuk Miguel Altuna Institutua goi mailako zikloetan diharduten ikasleei praktikak atzerrian egiteko aukera eskaintzen hasi zela. Horretarako, Leonardo Da Vinci programa europarra daukate.

Leonardo Da Vinci programaren helburua da Lanbide Heziketako ikasleak Europan barrena mugitzea, era honetan beste kultura batzuk eta lan egiteko modu ezberdinak ezagutzeko.

**BOST IKASLE**

Ikaslanetik jasotako bekei esker aurten Miguel Altunako bost ikaslek egin dituzte praktikak atzerrian: Hodei Aranguren antzuolarrak eta Asier Gorriño, Aitor Marauri, Martin Zaitegi eta Miren



Errumaniako unibertsitate batean izan dira bi ikasle eta bertako makinaren funtzionamendua ikasi dute.

Basauri bergarrek. Lehenengo biak Errumanian izan dira, eta beste hirurak Italian, Polonian eta Irlandan hurrenez hurren.

Ikastetxeak Madrilen aurkeztutako proiektu batean oina-

rritzen dira beka emateko. Iaz horri esker 15 ikasle izan ziren atzerrian: Alemanian, Italian eta Ingalaterran. Datorren ikasturterako 12 beka eskuratu ditu Miguel Altunak, eta interesa azal-

du eta baldintzak betetzen dituzten ikasleek praktikak egin ahal izango dituzte kanpoan. Datorren urteko praktikak Grezian, Alemanian, Errumanian eta Ingalaterran izango dira.

**MARTIN ZAITEGI**  
POLONIA

Varsoviako School of Linux delakoan egin du lan robotak muntatzen. "Beti izan dut gustuko kanpora joatea eta aukera eskaini zidatenean ez nuen dudarik egin". Hizkuntza izan da Martin-dako oztopo nagusia, baina gainontzean ongi moldatu da. Orain, Bergarara bueltatuta lan bila hasiko da.

**MIREN BASAURI**  
IRLANDA

Etxe agentzia batean egin du lan Mirenek Belfast inguruko herri batean. "Katalogoekin egin dut lan, Interneteko web orria eguneratzen, banketxeak paperak egiten... Baliagarria izan zait esperientzia hartzeko". Ikasle euskaldunekin egon da bizitzen Miren han egon den denboran.

**AITOR MARAURI**  
ITALIA

Diseinugile lanetan jardun du Aitorrek etxe agentzia bateko bulego teknikoan Italiako Cervia herrian. Hizkuntzarekin hasieran zailtasunak izan arren, ongi moldatu da gero. "Esperientzia bikaina izan da, lan egitea zer den ikasteaz gain, jende asko ezagutzeko aukera izan dut".

**ASIER GORRIÑO**  
ERRUMANIA

Timisoarako Unibertsitateko hainbat departamentu ezagutzen eman du Asierrek praktiketako aldia eta ikasitakoa baliagarri izango zaiola uste du. "Hizkuntza erakutsi behar ziguten, baina azkenean ez genuen eskolarik jaso, eta hori izan da okerre". Hala ere, ikaskide batekin izan da bertan.

**BEHEKO  
TABERNA**

Menestra  
eta untxia dira  
gure berezitasunak

ANGIOZAR  
Tel.: 943 76 55 74

**GOIERRI  
AUTO GIDARIEN ESKOLA**

Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

**U**  
UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

**MUJIKA FERRETERIA**

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

MINGAINARITIRAKA



## Jokin Martinez

AGORROSIINGO IGERILEKUKO LANGILEA

Udako denboraldian Agorrosingo igerilekuan izango da lanean Jokin Martinez elgoibartarra (32 urte). Era berean, Turismo Bulegoan ere jardungo du, eta, beraz, denbora laburra izango du horren gustuko duen beroaz disfrutatzeke.

Udako gauzarik onena eta txarrena?

Onena, beroa. Txarrena, denbora laburra izango dudala beroaz disfrutatzeke. Oporrak geroko utzi beharko ditut...

Nora egingo zenuke bidaiara bat?

Egiptora.

Turismo Bulegoan ere ibiliko zara udan. Bergarako txokorik gustukoena?

San Martin plaza eta inguruko kaleak: herri barrua.

Eta Euskal Herriko toki bat?

Urduña ingurua izugarri gustatzen zait.

Udan, igerilekua ala hondartza?

Hondartza nahiago; Saturraranera joateko ohitura dut.

Zaletasun bat?

Argazkilaritza.

Argazkiak koloretan ala zuri-beltzean?

Zuri-beltzean, beste sentimendu batzuk transmititzen direlako.

Liburu bat/Film bat/Musika talde bat?

La conjura de los necios (John Kennedy Toole)/Old boy/Coldplay.

Gizonezko eta emakumezko aktore bana?

Ralph Fiennes et Juliette Binoche.

Parranda-zalea zara?

Umorean arabera...

Jairik gustukoena?

Ondo pasatzen duzun edozein jai da ona.

Loterian edo kinielan 6 milioi euro irabaziz gero?

Ospa egin eta munduari bira eman...

Besteengan gehien estimatzen duzuna?

Egiazaletasuna.

Horoskopoa irakurtzen duzu?

Batzuetan, barre egiteko...

Egunkarian irakurtzen duzun lehen gauza?

Atzeko orrialdetik hasten naiz.

Eta zein albiste irakurri nahi zenuke?

Presidente demokratiko guztiak desagertu egin direla: Bush, Putin eta Afrika aldeko beste hainbat, esaterako.

EDU MENDIBIL

## BERGARARRAKMUNDUAN

### MAITANE AZKARATE-ASKASUA

21 URTE / IKASLEA / LOGOPEDIA IKASTEN ARI DA SALAMANCAN

# “Oso hiri bizia da Salamanca eta egunero dago zer egin eta zer ikusi; ez dago aspertzerik han”

EDU MENDIBIL

Ikasturtea Salamancan eman eta gero, dagoeneko oporretan dago Maitane. Aurreko astean egin zuen azkeneko azterketa eta azken emaitzaren zain dago, oporrekin gozatzeko irrikaz. Badu motiborik, azken emaitza horren faltan dena gainditu baitu. Eskoriatzan Irakasle ikasketak egin ondoren, logopeda izateko diplomatura egiten dihardu Salamancan. Hiru urteko diplomatura da, eta, beraz, beste bi urte emango ditu Maitanek Salamancan.

Lehenbiziko urtean ondo moldatu dela diosku: “Hasiera baten Bartzelonara joateko asmoa neukan, baina koadrilako lagun bat Salamancara zihoan, eta, hango unibertsitateak ospea duenez, hara joateko animatu nintzen. Eta ez naiz batere damutzen hartutako erabakiaz. Ikasle giro bikaina dago, 33.000 ikasle izango gara han eta kultura eskaintza ikaragarria da: egunero dago zer egin eta zer ikusi. Ez dago aspertzerik Salamancan, eta gauez irten garenean ere hango giroaz disfrutatzeke aukera izan dugu. Zintzo ibili gara, baina irten gara inoiz. Turista mordoa ere etortzen da Salamancara urte guztian; izan ere, gauza erakargarri asko ditu hiriak”.

Tren geltoki inguruko etxebizitza baten egon da Maitane. Berarekin batera beste hiru lagunek konpartitu dute etxebizitza: Idoia bergararra, Arritxu azpeitiarra eta Saioa eskoriatzarra. “Ikasleen etxebizitza baten egoiteke nengoen, Eskoriatzan ikasten nuenean Bergaran nengoe-lako. Esperientzia polita izan da; ederto moldatu gara laurok, eta datorren urtean ere elkarrekin jarraituko dugu. Hala ere, etxebizitzaz aldatu egingo gara, jabea gu egon garen etxebizitzara dator-eta. Hala ere, ez dut uste etxea topatzeko arazorik izango dugunik. Etxea alokatzeke aukera itzela dago”, diosku Maitanek.

*“Ikasleen etxebizitza baten egoiteke nengoen, eta esperientzia polita izan da”*

#### PRAKTIKAK HURRENGO URTEAN

Hasitako ikasketak gustuko dituela esan digu: “Eztarriko arazoak edo komunikatzeko arazoak dituztenei laguntza eskaintzen die logopediak. Hurrengo ikasturtean praktikak egiten hasiko gara, eta badaukat ilusioa bata zuria jantzi eta jendea tratatzen hasteko... Aho-tsa lantzeko teknikak landuko ditut praktiketan eta etorkizunean horretan lan egin nahiko nuke...”

Arritxu eta biok elkarrekin ari gara ikasten eta askotan komentatzen dugu etorkizunean bion artean kontsulta zabalduko dugula”.

Esan bezala, ikasturtea ondo joan zaio Maitaneri: “Nota bakarra jakitea falta zait, baina momentuz pozik nago emaitzekin. Irakasle ikasketak baino gogorragoa izan da, eskolak goizez eta arratsaldez izaten genituen-eta. Baina gustura ibili naiz. Gustuko ditut logopeda ikasketak eta Salamanca ere atsegin dut”.

Orain, oporrekin gozatzeko aukera izango du Maitanek. Urriaren 3an hasiko du hurrengo ikasturtea. Bien bitartean, lagunekin bidaiatxoren bat egiteko asmoa dauka: “Uztailean udalekuetan ibiliko naiz begirale lanetan eta ondoren lagunok Girona aldera joateko asmoa daukagu. Ikusi behar”.



## ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65



## POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

## KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA

BONOFOTOA

Zein da  
Arruriaga  
kaleko txoko  
honen izena:  
Argizain,  
Argineta ala  
Argibide?



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ELENA AGIRRErendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Elena!  
Galderaren erantzun zuzena: **Errotalde jauregia**.



BONOFOTOKO GALDERAREN ERANTZUNA: .....

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Creme Tropical galletak

800 g + 100 g doan

**1,42 €**

236 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ERRETRATUZAHARRA

OÑATI

Irrintzi zortzikoko bederatzi gizonak

Irrintzi zortzikoa ez zen txantxetako zortzikoa. Oñatin sortu zen zortzikoa, baina laster gurutzatu zituen Oñatiko mugak. Euskal Herriko toki askotan abestu zuten, baita kanpoan ere.

Makina bat txapelketa eta lehiaketatara aurkeztu zen Irrintzi zortzikoa, eta horietako batzuk, behintzat, irabazi egin zituzten. Adibidez, Felix Arregik gogoan dauka oraindik 1967. urte inguruan Donostiako Victoria Eugenia antzokian irabazi zuten saria. Beste behin, EAEko txapelketako lehen saria irabazi zuten Bilboko antzoki

batean egin zuten finalean.

Izenak dioen moduan, zortzikoa zortzik osatzen dute. Irrintzi zortzikoa, ordea, bederatzi gizon ziren, bat zuzendaria zen eta. Argazki honetan dotore agertzen dira guztiak.

**Lehenengo ilaran:** Felix Arregi, Nikolas Erostarbe, Jabier Letamendi eta Manolo Urtzelai.

**Bigarren ilaran:** Jose Mari Ordoki, Jose Errasti, Jose Antonio Villar, Jose Mari Arzuaga (zuzend.) eta Joseba Otolora.

**Argazkia:** Maria Elena Otolora



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33), Elgetako kultura etxera edo Oñatiko Laixanera. Zain gaituzu!

FARMAZIEN TXANDA

- EGUBAKOITZA, 17**  
ZABALA. Barrenkalea 25. . . 943 76 16 87
- ZAPATUA, 18**  
GUALLAR. San Antonio 5 . . 943 76 11 05
- DOMEKA, 19**  
GUALLAR. San Antonio 5 . . 943 76 11 05
- ASTELEHENA, 20**  
ESTELLA. Matxiategi 5. . . . 943 76 19 63
- MARTITZENA, 21**  
MOZOS. Iparragirre 2 . . . . 943 76 12 15
- EGUAZTENA, 22**  
CAMACHO. Oxirondo 4. . . . 943 76 11 74
- EGUENA, 23**  
ZABALA. Barrenkalea 25. . . 943 76 16 87

TELEFONOAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) . . . . 943 03 54 00
  - Bergarako Udaltzaingoa . . . 943 77 91 06
  - Antzuolako Udaltzaingoa. . . 943 76 62 46
  - Ertzaintza . . . . . 943 53 47 20
  - Osasun etxea . . . . . 943 76 24 40
  - Asepeyo . . . . . 943 76 16 43
  - Pakea . . . . . 943 76 13 49
  - Angiozarko medikua . . . . 943 78 90 27
  - Antzuolako medikua . . . . 943 76 62 23
  - Odol emaleak . . . . . 943 76 16 24
  - Alkoholiko Anonimoak. . . . 943 76 51 06

- GARRIAOK**
- Taxiak . . . . . 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea . . . . 943 77 91 00
  - Antzuolako Udaletxea . . . . 943 76 62 46
  - Udal Artxiboa . . . . . 943 77 91 32
  - Igerilekuak . . . . . 943 76 20 51
  - Kultura etxea . . . . . 943 77 91 58
  - Liburutegia . . . . . 943 77 91 62
  - Kirolegia . . . . . 943 76 56 41
  - Mizpirualde egoitza. . . . . 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia . . . . . 943 76 14 92
  - Erregistroa . . . . . 943 76 13 15
  - Jardun . . . . . 943 76 36 61
  - Postetxea . . . . . 943 76 26 85
  - Bedelkar . . . . . 943 76 04 68
  - Akulu AEK . . . . . 943 76 05 18
  - Udal Euskaltegia . . . . . 943 76 44 53
  - Bergarako notariotza . . . . 943 76 10 73

MEZAK

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**  
Hileko bigarren domekan,  
10:30ean eta 13:00etan.
  - San Pedro**  
Hileko hirugarren domekan,  
09:30ean eta 12:30ean.

URBANOAK

- San Lorenzo/San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00,  
11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20,  
16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00,  
19:40, 20:20 eta 21:00.
- GERALEKUAK:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Sorluzue aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegarieta/Olabarrenetik irteerak**  
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20,  
10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05,  
13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik),  
16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40,  
18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
- GERALEKUAK:** Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.



## ATREBENTZIAEZPADA/ Bergarako ala beste herrietako igerilekuetara joaten zara udan?



GORKA ALBERDI




MIRARI ALBERDI



JON ARREGI



MAITE AGIRREZABAL



LUIS ANGEL SANTIAGO



MARIAN FERNANDEZ

Ez hemengoetara ezta kanpokoetara ere. Hondartzara edo Gasteiz inguruko urtegiara joaten naiz uda partean. Igerilekua baino nahiago dut hondartzako giro naturala, eta uda hara joateko aprobetxatzen dut.

Ni ez naiz igerilekura joaten astirik ez dudalako, baina umeak hemengoetara joaten dira, gustura gainera. Ni obretan daudenetik joan izan naiz inoiz, eta jendea kexatu arren ez dut uste horren gaizki dagoenik.

Lagunekin herriko igerilekuetara joaten naiz; gurasoekin, berriz, Arrasatekoetara. Nik, dudarik gabe, Arrasatekoak ditut Bergarakoak baino gustukoago, eta sarritan joaten naiz bertara uda partean.

Ez naiz joaten, uztailean ere lan egiten dut eta. Alabak, ordea, joaten dira eta ahal izanez gero Arrasateko igerilekuetara. Egutero ez diegu lagatzen, baina eurek nahiago dute autobusez hara joan.

Ez dut sekula igerilekura joateko ohitura handirik izan, eta orain ere ez naiz joaten. Uda partean urtegiarako joera izaten dut batez ere; hondartzara gutxiagotan joaten naiz, hondarra ez baitzait batere gustatzen.


Lehen joaten nintzen herriko igerilekuetara, baina orain obretan daudenez, ez udan ezta neguan ere ez naiz joaten. Udan, gainera, eguraldi beroa aprobetxatuz hondartzara joateko ohitura dut.

## TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK SAN MARTZIAL** Aranzadi Ikastolako Haur Hezkuntza-koak haserre azaldu dira San Martzialera joan eta aurkitutakoarekin: "San Martzial herriarena da ala banaka batzuen? Umeekin egun-pasa etorri eta sokaz hesituta eta arriskuz beteta topatu dugu, oraindik hilabete geratzen denean bertako jaia ospatzeko". //A.

## BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru



"Lika"

Likina, itsaskorra.  
— Bietzak lika-lika eindra gelditu jat elauakin.

JON IRAEGI

## BESTE EKESANA

“Andoainen ikasi genuen Telmo Esnaiek eta biok. Mundu hori erakargarria zen, teknika aldetik eta, polita zelako. Hor hasi ginen. Gero, teknikari moduan urte pila bat eman ditugu lanean, pelikulak egiten eta azkenean, media ezagutzen da, ikasi egiten da zelan kontatzen diren istorioak. Azkenean, diru-laguntza bat eskatu genuen Txotx labormetria egiteko eta eman egin ziguten. Hortik aurrera dena etorri da. Beharra baino gehiago gogoia izan da. Elkarren osagarri gara. Telmok asko menderatzen du errodajeko dinamika, horretan lan handia egin duela. Ni, berriz, errodajearen atzerago ibili nintzen. Sartuago ibiltzen naiz gidoian, idazten”  
**ASIER ALTUNA / Zinema zuzendaria 'Habe'/05-Ekaina**

## HAUGIROA!

MINIMOA	6 °C		
Egubakoitza, 10			
MAXIMOA	31 °C		
Zapatua, 11			
ASTEKO	7,5 L		
EURIA (l/m <sup>2</sup> )			

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 8	26 °C	10 °C	- l/m <sup>2</sup>
Eguena, 9	28 °C	7 °C	- l/m <sup>2</sup>
Egubakoitza, 10	29 °C	6 °C	- l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 11	31 °C	11 °C	5,4 l/m <sup>2</sup>
Domeka, 12	30 °C	14 °C	1,7 l/m <sup>2</sup>
Astelehena, 13	25 °C	16 °C	0,4 l/m <sup>2</sup>
Martitzena, 14	24 °C	13 °C	- l/m <sup>2</sup>

San Juan auzoan jasotako datuak

## BERAIEKDIÑO/ Mikel Elkoroberezar



Gertuko  
altxorrak

**B**ergaran 36 urte daramatzat bizitzen eta esateak lotsa eman arren, toki asko oraindik ez ditut ezagutzen. Horieta batzuk San Migel eta bere inguruak dira.

Domekan eguraldi ona egiten zuen eta auto barik nengoen, San Migeletik Gorlara joate a pentsatu nuen. Bidea ondo ez nekienez joan ahala galdetu eta ibilbidean topatu nituen lagunek esan zidaten norantz jo. Hasieran San Migelera bidean baserri zoragarriak ikusi nituen; gero, paseatzen zebilen emakume batek San Migeletik Deskargarako bidea nondik zegoen adierazi zidan; berak eta Tukarri inguruan ikusitako Euxebiok esandako izenak oso politak iruditu zitzaizkidan: *Rantxo*, Tukarri, Larraitzgain, Lizargarate, Koroso, Arranomendi...

Izenak bakarrik ez, aldapa politak ere Landarraitzeko ton-torrean bukatu ziren eta handik Debagoieneko bailararen ikuspegi zoragarria ikusi nuen. Aizkorriko mendi lerroa inoiz baino berdeagoa eta Arrasate eta

Oñatiko auzoak ikusi nituen. Harrituta geratu nintzen etxetik hain gertu eta autoa hartu barik zelako paisaia politak ditugun ikustean! Bergarako lurra laga eta Lizargarateruntz jo nuen Oñati eta Antzuolako eremuetan barrena, Deskargara heltzeko. Gorlara artekoak ondo ezagutzen nituen. Nekatuta egon arren harrituta nengoen herritik gertu aurkitutako paisaia zoragarriekin.

Ondo dago kanpora irten eta mundua ezagutzea baina bertakoak ere merezi du, askotan ondoan duguna, alde batera lagatzen dugu. Ez diot telebistan eta egunkarietan esandakoari kasu egin behar ez zaionik, baina National Geographicen irtengo ez diren *Rantxo*, Tukarri edo Landarraitzen berri nahi izanez gero gure begiak eta oinak erabili besterik ez daukagu.

**“Harrituta geratu nintzen etxetik hain gertu zelako paisaia politak ditugun ikustean”**

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA  
Edu Mendibil  
ERREDAKZIOA  
Aintzane Irizar  
Irati Agirrezaldegi  
Oihana Elortza  
MAKETAZIOA  
Maitena Arana

PUBLIZITATEA  
Mireia Larrañaga  
KOLABORATZAILEAK  
Luis Mari Agirre  
Juan Martin Elexpuru  
Miguel Angel  
Elkoroberezar

LEGE-GORDAILUA  
SS-50/91  
ISSN  
1130-6599  
TIRADA  
8.680 ale

Goiena  
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Bergarako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Elgetako  
Udala

# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko ekainaren 17a / 248. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

## Agintaldiaren balorazioan, Beheko eta Sagasti auzoetako proiektuak nagusi

AINTZANE IRIZAR

**Bi urte bete ditu oraingo agintaldiak, eta balorazioa egiteko ordua heldu da. Horrela, EAJ-EA eta Gertu Gae alderdien iritziak jaso ditugu. Proiektu eta egitasmo asko izan dira, eta guk horietako garrantzitsuenen gaineko balorazioak jaso ditugu.**

Horrenbeste polemika sortu duten hirigintzako proiektuak, Gertu Gae plataformaren egoera, Událaren kudeaketa, Haurreskola... Gai ugari izan ditugu hizpide bi ordezkariekin: Juan Antonio Iturbe (Gertu Gae) eta Jose Angel Zabalo (EAJ-EA). PSE-EEko Elvira Kortajarena zinegotziarekin berba egitea guztiz ezinezkoa gertatu zaigu, Parisen dagoelako. Horrela, Paco Morcillo alderdikidearekin berba egin dugu.

### EAJ-EA, GUSTURA EGINDAKO LANAREKIN

Jose Angel Zabalo alkateak bi urteotan egin dituzten hainbat proiektu azpimarratu dizkigu: "Haurreskolaren proiektua garrantzitsua izan da, nahiz eta, oraingoz, ez duen izan espero genuen erantzuna". Bestetik, azpimarratu du arratsaldetako autobus zerbitzuak izan duen arrakasta: "Jarraipen zehatza egiten diogu zerbitzu horri eta emaitzak oso positiboak dira".

Txatxilipurdik gazteen gainean egin zuen azterketa ere aipatu digu: "Asko lagundu zigun azterketa hark, eta gaur egun, gaztetxokoaren funtzionamenduari eragin oso pozik gaude; gaztetxearen kontuarekin ere adostasunera heldu gara, nahiz eta gero eurek hainbat arazo izan dituzten", azaldu digu.

Errekaren proiektua aurrera ateratzea ere oso positibotzat jotzen du, horrenbeste urtean irtenbiderik eman ezinda ibili eta gero.

Agintaldi honetan, baina, zeresan handiena eman duena izan da Udalak aurkeztu duen proiektu sorta. Horren gainean, zera esan digu Zabalo: "Hasiarako proiektuak egokitzen joan gara, eta azkenean, aldaketa



ARTXIBOA

Zeresan ugari sortu dute Událaren proiektuek, eta guztiek izan dute gai hori hizpide.

dezenteak egin dizkiegu. Ikusi dugu denon iritziak, kezkak, alegazioak eta sinadurak kontuan hartu beharrekoak direla, eta azkenean, saiatu gara denok konforme geratzeko moduko proiektu sorta egiten". Honekin, aipatzekoa da, azkeneko proiektuon arabera, Beheko Auzoan 20 etxebizitza (Udalak lagundutakoak), beheko solairuan kultura eta kirol jardueretarako lokalak eta Sagasti auzoan aurrez ikusten zuten baino eraikin txikiagoa egingo dutela Kultura-Gizarte Etxearendako.

Plataformaren egoeraren gainean galdetuta, berriz, honako hausnarketa egiten du alkateak:

*"Ikusi dugu denon iritziak kontuan hartu beharrekoak direla eta proiektu berriak egin ditugu"*

JOSE ANGEL ZABALO/ EAJ-EA

"Hau da guk erabakitzen ez dugun gai bat, baina, geuk sufritzen duguna, are gehiago, udal txikitian. Dena dela, plataformako kideek batzordetan lanean dihardute eta horrek poztu egiten gaitu. Nik esperantza daukat aurrerantzean hobeto moldatuko gara; izan ere, lehen aipatutako proiektuok ere ez digute batere lagundu gure harremanean".

### GERTU GAE, ORDEZKARI OFIZIAL BARIK

Juan Antonio Iturbek honako hitzokin hasi du bere balorazioa: "Udal honena ez da egoera demokratikoa; 437 boto emaileren ordezkariarik ez dago". Hala

*"Udalak ez du ideia argirik izan eta oso entzungor egon da alegazio eta iritzien aurrean"*

JUAN ANTONIO ITURBE/ GERTU GAE

ere, batzorde guztietan lanean dihardutela azaldu digu Iturbek. Plenoetan ere parte hartzen dute, euren iritziak emanez. Zera gaineratu digu: "Gauzak aldatzeko borondatea dagoela hainbeste entzuten gabiltzan honetan, herri mailan ez dugu horrelakorik ikusten. Herri mailatik hasi beharko genuke gatazka konpontzen".

Udal Gobernuaren kudeaketaren eta Udalak egin dituen gainean, berriz, horrelaxe hasi du Iturbek bi urteotako balorazioa: "Erabaki oker batekin hasi zuen Udalak agintaldia; Izartu I programan ez zuen laguntzarik jaso eta errekurtsioa aurkeztu zuen

*"Proiektuak onak ziren, baina, 50 herritarren sinadurek pisu handia dute"*

PACO MORCILLO/ PSE-EE

Udalak. Oraingo Udalak, segituan erabaki zuen errekurtsio hori kentzea, promesa politiko batzuen truke. Horrek kalte ekonomiko handia ekarri zion Udalari".

Bestalde, proiektuen gainean berba egin digu: "Udal Gobernu hau noraezean ibili da. 2004ko urtarrilean aurkeztu zituzten hainbat proiektu eta ordutik aldaketa ugari egin dituzte. Herri mailan erantzun handia izan dute, gainera, proiektu horiek. Nik eskertu nahi nuke proiektuon aurka borrokan jardun dutenei; eurei esker, Udalak ikusi du astakeria hura ezin zutela aurrera eraman". Bestalde, azkeneko proiektuen gaineko informazio nahikoa ez dago kala eta iritzirik ezin duela eman adierazi digu Juan Antoniok.

Laburbilduz: "Ez da ideia argirik egon, gauzak zehazteko zailtasuna erakutsi dute eta entzuzgor azaldu dira alegazioen, iritzien eta oposizioaren aurrean".

Errekaren proiektuaren gainean, berriz, zera adierazi digu: "Azkenean, aurrera egin du, baina, hankamotz geratu da proiektu hori, besteak beste, plazak berri handiagoak behar dituelako bere funtzionaltasuna izateko".

Haurreskolaren proiektua ere aipatu digu: oso positibotzat jotzen

### PSE-EE, HIRIGINTZAREN GAINEAN

Esan bezala, Elvira Kortajarena zinegotziarekin berba egiteko lortu ez dugunez, Paco Morcillo alderdikidearekin egon gara. Hirigintzako proiektuen gainean berba egin dugu berarekin.

"Guri positiboak iruditu zaitzaizkigun proiektuak: Beheko Auzoan 50 etxebizitza egitea. Sagastin Kultura etxea eta abar. Horrela, Beheko Auzoan urbanistikoki lotuta geratzen zelako. Baina, ondo aztertu beharreko gainak izan ziren, herritar asko zegoelako horren aurka; 500 herritarren sinadurek pisu handia dute" azaldu digu Morcillok.

Bestalde, askotan, alderdikiek pisu handiegia izateko dutela kritikatu du. Proiektuak aurkeztzen direnean, adostasuna lortu arte eztabaidatu behar duko lirakeela adierazi digu bukatzeko.

## ELKARRIZKETA

**JOSU TORNAY/MATZ-ERREKAKO ATE AUTOMATIKOEN NEGOZIOKO ZUZENDARIA**

### *“Ate automatikoena izan da urteotan gehien hazi den enpresako negozioa”*

A.I.

**M**atz-Errekako ate automatikoen negozioak indar handia hartu du urteotan. Horrela, lantegia txiki geratu zaie eta berria egin dute Bergarako San Joan auzoan. Hil honetan bertan hasiko dira hantxe lanean.

**Zer egingo duzue Bergarako lantegi berrian?**

Ate automatikoen negozio osoa eramango dugu hara. Ekain amaierarako han lanean hastea espero dugu. Hogeitabat langile joango gara; denera, 30 langilek dihardugu negozio honetan, baina, horietako hamar batek Estatuan ditugun delegazioetan lan egiten dute.

**Zenbat negozio ditu enpresak?**

Lau: plastikoena, finkapen elementuena, ate automatikoena eta automatismoena. Azken hori da enpresako negozio handiena. Gurea, berriz, txikiena.

**Zuek produktua osorik saltzen duzue, ezta?**


Oinezkoendako ate automatikoak saltzen ditugu; atea bera eta mekanismoa, dena saltzen dugu. Prozesu osoa kontrolatzen saiatzen gara.

**Ze bezero dituzue?**

Gure bezero nagusiak dira enpresa eraikitzaileak, Estatu mailakoak, batez ere. Esportazioan izugarri egin dugu gora. Momentu honetan %10 espordatzen dugu; orain dela bi urte, berriz, %3. Portugaleko delegazioan ere jendea daukagu eta Europan eta beste zonalde batzuetan ere (Aljerian, esaterako) banatzaileak ditugu. Mexikon ere saltzen dugu, hango lantegiaren bitartez. Nik argi daukat negozio honen etorkizuna espordazioan dagoela.

**Ondo doa, hortaz, negozioa.**

Bai, bai; azkeneko urteotan negozio hau izan da gehien hazi dena. Aurten iaz baino %40 gehiago saltzen gabilta. Nik uste dut



A.I.

*“Nik argi daukat negozio honen etorkizuna espordazioan dagoela”*

beste hiruzpalau urtean hazkunde handia izango dugula. Orain dela sei urte hasi ginen ate automatikoekin automatismoen negozioaren barruan, lau langile; gaur egun, Estatuko hirugarrenak gara salmentetan, eta Portugalen ere onenen artean gaude. Atzerrian lan handia dugu egiteko.

*“Orain dela sei urte hasi ginen ate automatikoekin, eta gaur, Estatuko hirugarrenak gara”*

**Zergatik joan behar izan duzue herritik kanpora?**

Egia esan, guk nahiago genuen Antzuolan geratzea, baina, lantegi berria egitea erabaki genuenean, duela hiru urte, aukera egokiena zen. Azkenean Bergarara etorri gara san Joan auzora.

## LABUR

### **San Joan bezperako ospakizunak izango ditugu datorren egunean, Herriko Plazan**

Urteroko ohiturari jarraituz, hainbat ospakizun izango ditugu San Joan bezperan, Herriko Plazan. Batetik, arbola jasoko dute; ondoren, herriko dantzarien saioa izango dugu, eta azkenik, balkoi eta leihoetako lore ederren lehiaketako sariak banatuko dituzte. Gero, domekan, Uzarraga auzoan ospatuko dute San Joan eguna.

### **Antzuola Kirol Elkarteak aipamen bereziak egin dizkie bost taldeetako hamar kideri**

Bost futbol taldeek denboraldi bukaera ospatu zuten, afari batekin. AKEko arduradunek hamar kideri aipamen berezia egin zieten; hona hemen: Deiane Zubikarai eta Itsaso Azkargorta; Gotzon Zabalo eta Ieltsu Mendizabal (erregionalak); Unai Madariaga eta Iñaki Arbulu (gazteak); Xabier Arbulu eta Manex Manzisidor (kade-teak); eta Julian Ramirez de Okariz eta Jon Iturbe (infantilak).

### **Debarroko txapelketan, finalerdietarako sailkatu da kadete mailako hirukotea**

Aitor Mendizabalek, Asier Longaresek eta Aitzol Iturbek dihardute Debarroko Txapelketan, kadete mailan. Ondo jardun dute txapelketan eta finalerdietarako sailkatzea lortu dute. Hala ere, aurreko asteburuan, etxean, galdu egin zuten Eibarren aurka (19-22). Baita nagusiek ere, 10 eta 22 egin zuten eibartarren aurka.



### **Ikasturte amaieran, irteera ugari**

Eskolako umeek ikasturte amaierako hainbat irteera egin dituzte: txikiak Gorlan egon ziren; hiru eta lau urtekoak, berriz, Añorgako Txiki Park-en eta Larraitzen (argazkian); 5, 6 eta 7 urtekoak, berriz, Zumarragan; 3., 4. eta 5. mailakoak kostaldera joan dira, eta nagusienak, berriz, Mendizorrotzara joango dira datorren astelehenean./A.I.

# EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatutako eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23



INDUSTRI MANTENIMENDUA

Jose  
Gomez  
Abad

Errekalde 6, 4-B.  
Antzuola  
943 76 60 19  
943 76 60 43  
Faxa:  
943 76 60 19

**LEKY-BERRI  
MERENDEROA**

Janariak  
eta  
edariak

Tf. 943 76 60 94  
ANTZUOLA

# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2005eko ekainaren 17a / 231. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegi • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

## Hiru irlatxo eta semaforoak ipintzen hasi dira Artekalean

IRATI AGIRREAZALDEGI

Autoen abiadura moteltzeko hainbat neurri hartu zituen Udalak. Horien artean, Artekalean irlatxoak eta semaforoak ipintzea. Lanak asteon hasi dituzte, eta horrekin oinezkoen arriskuak txikitzea eta Eibartik datozen autoak herrira poliki-gog sartzea lortu nahi da.

Herri barruan ibilgailuen abiadura moteltzeko hainbat neurri hartu zituen Udalak. Besteak beste, semaforoak ipini zituzten herriko erdigunean. Orduan egindako proiektuan zehaztu zituzten hainbat semaforo eta irlatxo, ordea, ez zituzten ipini. Asteon hasi dira, hain zuzen ere, horiek ipintzen Artekalean.

### SEMAFOROAK OINEZKOEN DAKO

Irlatxo horietako bat Elizaren atzeko aldean dagoen pasabidearen parean kokatuko dute.

Izan ere, eskolako umeak sarritan pasatzen dira bertatik gaztetxearen parera eta handik kiroldegira joateko. Irlatxoak ez ezik semaforoa ere izango da bertan. Gehienetan argi berdea izango du eta jendeak errepidea gurutatu behar duenean jarriko da gorri. Horretarako, botoia zantatu beharko dute oinezkoek. Semaforoak ipinita arriskuak ekidin nahi dituzte.



Martitzenean hasi ziren lanean Artekalean eta aurki irlatxoak amaituta izango dira.

Gainontzeko bi irlatxoak Artekalearen amaieran eta San Roke ostean egongo dira. Irlatxo horiek toki horietan ipintzearen helburua da Eibar aldetik datozen ibilgailuek abiadura moteltzea herri barrura sartu aurretik.

Eusko Jaurlaritzaren arduratutako da irlatxoak ordaintzeaz; Udalak semaforoak ordainduko ditu.

Eusko Jaurlaritzaren arduratutako da irlatxoak ordaintzeaz; Udalak semaforoak ordainduko ditu.

Eusko Jaurlaritzaren arduratutako da irlatxoak ordaintzeaz; Udalak semaforoak ordainduko ditu.

## HERRITARREN HITZA / Geaxi Ezpeleta • Ikaslea

### Dirua eta interesak hemen ere

Goizean irratiko albistegia entzunaz ohetik jaiki. Gogorarekin egunkaria irakurri. Bazkal eta afal orduetan telebistako albistegi pare bat irentsi. Gehiengoak burutzen duen erritual bat dela esango nuke nik. Honek argi erakusten du gure gizartean ikaragarriko lekua daukatela hedabideek. Masa hedabide bezala ezagunak diren medio hauen bitartez jasotzen dugu errealitatea eguneroko. Bertako eta hango kontuak objektibotasun osoz kontatuak. Hori diote komunikabide hauek kudeatzen dituztenek. Kontuan hartu behar dugu hedabide baten bere izatea eta funtziona-

mendua bermatzeko baliabide ugari behar dituela, eta noski, diru kopuru altua. Komunikabidea autogestioan oinarritzen ez bada (prentsa alternatiboak egiten duen tankeran) dirua jartzen duenak izango du beti azken hitza. Honek elite ekonomikoa, boterea, jartzen du hedabideen agintaritzan. Boterea errealitatea jasotzeko erabiltzen dugun iturraren atzean. Ez hori bakarrik, medio hauetan argitaratzen den



**"Boteredunen arma estrategiko bihurtu dira hedabideak"**

albisteen gehiengoa informazio agentziek jaso, aukeratu eta saltzen diena da. Agentzia hauen jabetza ere elite ekonomikoa dauka. Objektibotasunez moztortutako errealitate itxuraldatua, hori da saltzen dituztena. Nola hitz egin dezakete prentsa objektibo eta askeaz?

Elite ekonomikoak finantzatzen ditu, beraz, komunikabideak, eta beronen interesen menpe jardutera derrigortuta daude hedabide

zein kazetariak. Jabeak sostengatzen baitu komunikabidearen izatea eta kazetariaren soldata edo kanporatzea. Horrela boteredunen arma estrategiko bihurtu dira hedabideak. Hauen bitartez gidatzen dute artaldea komeni zaien zelaitik bestera, beti euren interesen arabera. Eta beraien interesak defendatzeagatik edo zer egiteko prest azaltzen dira. Informazio eskubidea ukatzen adierazpen eta prentsa askatasuna mugatu edo ezeztatzen.

Kontuz hedabideekin, gertukoekin ere bai. Dirua eta boterea atzean daudenean beti baitaude inguruan norbanako edo talderen baten interesak.

## LABUR

### Eskola Txikien Jaiko zozketaren zenbaki sarituak

Eskola Txikien jaia zela eta zozketa egin zuten domekan Herriko hainbat denda, jate-txe zein zerbitzuek emandako opariekin sortak egin eta gutira sei sari banatuko dituzte. Saritutako zenbakiak honako hauek dira: 2685; 0677; 2788; 2687; 2969 eta 0061. Ordezkoak berriz: 0202; 0691; 0950; 1887; 2457 eta 2244. Saritutako zenbakien jabeek 620 056 462 telefonora deitu beharko dute ekainaren 30a baino lehen.

### Finalerdiak pilotan eta areto futboleko finala

Gaur, barikua, ETB Kantxa Lau T'erdiko Pilota Txapelketako finalerdiak jokatu dira. 20:00etan kadeteen txapelketa izango da eta Beroizek libratzen aurka jokatuko du. Ondoren Berasaluze eta Argote izango dira aurrez aurre 20 urtez azpikoen mailan. Bestalde, Areto Futbol Txapelketako finala bihar, zapatia, jokatu da 16:00etan kiroldegiko kanpoko kantxan. Finala jantzen bi talde finalistek jokatuko dute: Arrasateko Añiketan eta Durangoko Vicios taldeek, hain zuzen ere.

### Erretiratuen bazkarirako txartelak salgai

Jaietan, urteroko ohiturari jarraituz, aurten ere erretiratuen bazkaria izango da. Uztailearen lehen eguna dute bazkaria Espaloia Kafe Antzokian. Herriko erretiratuen guztiak daude gonbidatuta, baina joan nahi duten txartela erosi beharko dute aurrez. Txartelak salgai daude udaletxean eta Maria Asun janari dendan sei euroren truke. Bazkarian zenbat izango diren aurrez jakitea komenidenez, txartelak erosteko azken eguna ekainaren 24a izango da.

ELKARRIZKETA

OSKAR CARRASCAL/UDAL KIROL TEKNIKARIA

“Kirol dinamika aberatsa dago herrian”

I.A.  
Herrian kirol arloan dau- den beharrei erantzuteko eta gauzak antolatzeko talde bat sortu nahi dute. Horretarako ekainaren 20an 19:30ean bilera egingo dute kultur etxean. Kirol gaiekiko interesa duten herritarrak daude gonbidatuta. Aurrez talde honen berri eman digute.

**Zein helbururekin sortu nahi duzue taldea?**

Udal kirol zerbitzuak, egun, herriko kolektibo mugatu bati heltzen dio eta ez ditu asetzen herritar guztien kirolarekiko grinak. Beraz, taldearen helburua herrian kirola dinamizatzea eta ekimen eta jarduerak koordinatzea litzateke. Horretarako, ezinbestekoa da lantalde bat eratzea; malgua eta herritar guztiei irekia izango dena.

**Zeinek osatuko luke taldea?**

Herriko kirol eragile guztiak: kirol eta kultura elkarteek zein kirola gustuko duten norbana-koek. Herritarrek praktikatzeko dituzten kirol guztiek izango luke- te tokia. Taldea independentea izango litzateke eta ez legoke Uda-

laren mende; haren esku-hartzea ahalik eta txikiena izango litzateke, laguntza ematera soilik mugatuz: diru-laguntza, laguntza administratiboa... Udal kirol zerbitzuak lagun dezake, lan batzuk bere gain hartuta. Taldearen lan karga txikituz eta jendearen inplikazioa erraztuz.

**Zer egingo luke taldeak?**

Eragile bakoitzak zehaztu beharko du zebateraino inplikatuko nahi duen taldean, zein kirol-letan, nola... Ondoren taldeak lan- du nahi dituen kirol-esparruak zehaztuko litzateke: aisialdia, eskola-kirola, ikuskizunak... Gero, ekimen ezberdinak koordinatu beharko lirateke, eta herrirako kirol egutegia osatu: mendi irteerak, maila ezberdinetako txirrindularitza irteerak edo probak, txapelketak, ikastaroak...

*“Taldearen helburua da herriko kirol jarduerak eta egiturak dinamizatzea”*

**Elgetan kirol arloan nahikoa baliabide dago?**


Herriaren tamainarako baietz uste dut. Kirol instalazioak berri- tu behar dira, eta bide horretatik aurren pilotalekua konponduko dute. Bertan ur eta elektrizitate instalazioak ere berrituko dira. Bestalde, gabezia batzuk badaude, noski. Baina herri txikia izan- ik ezin dira herri handien kirol azpiegiturak eta zerbitzuak izan. Kirol arloan edozein ekimen gau- zatzeko, eta oro har, kirola egin nahi dutenendako baliabideak eskaintzen direla uste dut.

**Herriko kirolariek nahikoa laguntza jasotzen dute?**

Kirol dinamika aberatsa dago herrian, baina bakarkako kirolak edo talde txikietan egiten direnak dira nagusi. Udal Kirol Zerbitzu- tik, laguntza eskatu digutenei lagundu diegu: diru-laguntzak, instalazioen erabilera...

**Aurrerantzean zein proiektu daude herrian kirol arloan?**

Hiru proiektu azpimarratuko nituzke: batetik, pilotalekua eta kirol instalazioak berritzeko proiektua. Lanek iraun bitarte- an ezingo da pilotalekua erabili eta gainontzeko kirol instalazio- ek ere erabilpen mugatua izango



dute. Bestetik, herrian kirola dinamizatzeke eta sustatzeko egi- tura egonkorra eratzea legoke. Eta azkenik, ditugun kirol zerbitzuak


mantentzeko ez ezik hobetzeko erronka dago. Horretan, Eskola Kirola programa ardatz nagusi bat da.

MUSIKA

Txuma Murugarrenen kontzertua Espaloian

I.A.  
Bizkaian bizi den bakarlariak kontzertua eskainiko du gaur, barikua, 22:30ean Espaloian.

Abeslari honek *Nire anaiaren kotoxeko argiak* iaz kaleratutako bere laugarren diskoa aurkeztu- ko du Espaloiko emanaldian. Lan honetan, eguneroko gauzak gai hartuta, heldutasuna eta abesti ederrak egiten maisua dela era- kusten du.



*Nire anaiaren kotoxeko argiak* diskoa aurkeztuko du gaurko kontzertuan.

AUTOAK


Antzinako autoak ikusgai izango dira domekan herriko plazan

I.A.  
Udaleko Turismo Departamen- tuak antolatuta, auto klasiko- en eta kirol automobil histori- koen kontzentrazioa egingo da domekan herriko plazan. Gidariak euren antzinako ibilgailuak ipiniko dituzte ikusgai eta herrian barrena buelta bat emango dute.

Marka eta modelo ezberdin asko- tako autoak egongo dira ikusgai domekan herriko plazan. Auto hauen berezitasuna euren antzi- natasuna da; izan ere, 25 urtetik gorako ibilgailuak izango dira. Gipuzkoako hainbat txokotako auto-zaleek 10 edo 15 auto eka- rriko dituzte Elgetara, jendeak hain bitxiak diren ibilgailu zahar- rarak ikus ditzan.

Goizean, 11:00ak inguruan pla- zan elkartuko dira gidariak eta 13:30ak bitartean autoen erakus- keta egongo da bertan. Autoak ikusi baino ezingo dira egin.

Ondoren, 13:30ean irten eta Elgetako kaleetan barrena ibili- ko dira autoak Asentziara arte- ko ibilbidea eginez. Gero, berriz



Guztira, marka eta modelo askotako 10-15 auto izango dira ikusgai.

ere 17:00ak bitartean plazan laga- ko dituzte autoak.

**TURISMOA ERAKARRI**


Elgetako Udalak turismoa herri- ra erakartzeko asmoz antolatuta du

erakustaldi hau. “Herrian anto- latzen diren ekintza gehienak barruan izaten dira, eta horrela- ko gauzekin kaleko giroa piztu nahi dugu”, esan digu Patxi Basauri alkateak.

# Oñati

OÑATI / Egubakoitza / 2005eko ekainaren 17a / 11. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oihana Elortza • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 71 29 77 • Posta elektronikoa: oinati@goiena.com • Lege gordailua: SS482/05



Diego Moyua oñatiarrak erakusketa honetan duen lanetako bat bi eskulturaren atzean.

## Artelan modernoak artisten elkartrukerako

OIHANA ELORTZA

Nazioarteko artisten lanak daude kultura etxeko erakusketa aretoan. Tartean daude Diego Moyua artista oñatiarraren bi margo ere. Maila handiko erakusketa da eta koloretsua eta modernoa da. Hilaren 20a arte dago zabalik **4B Elkarrizketak**.

**4B Elkarrizketak** du izena kultura etxean dagoen erakusketak. Frantzia, Brasil, Espainia eta Euskal Herriko artisten lanak daude bertan eta egileek elkar ezagutzeko, elkarren lana ikusteko eta elkarrizketak eta harremanak sortzeko aukera izan dute.

Ez daude margoak, pinturak bakarrik. Baita eskulturak ere, eta guztiak, lan guztiak dira koloretsuak eta modernoak.

Artisten harremanak sendotzeko balio duen erakusketa garrantzitsua da hau. Frantziako toki askotan egon da eta Oñatin egon ostean Galiziara, Zaragozara eta Brasilera eramango dute. Oñatiko kultura etxean hilaren 20a arte dago zabalik.

**DIEGO MOYUA/MARGOLARIA**

*"Aurrera egiteko dudan gogoia erakutsi nahi dut nire margolanetan"*

**Zer iruditu zaizu 4B Elkarrizketak erakusketa?**

Asko gustatu zait eta oso gustura gelditu naiz. Lan benetan onak daude. Ez bakarrik margoak, baita eskulturak ere. Asko gustatu zaizkit eskulturak ere. Bestetik, nazioarteko artista hauekin egoteko aukera izan dut, euren esperientzia ezagutzeko eta harremanak sendotzeko aukera, eta honek guztionek lanerako motibazioa areagotu dit.

**Zer erakutsi nahi duzu zure bi margolan horietan?**

Gasteizen dudan erakusketa baten izan ditudan lanak dira eta nire sentimenduak, arima, ateratzea esan nahi dute. Aurrera egiteko grina, gogoia.

**Saltzeko margotzen duzu?**

Orain arte ez dut saltzeko gogorik izan, artearen munduan sartzeko irrika baizik. Orain,



aldiz, ikusi dut jendeak eskatzen duela artea. Bestetik, gainera, egia da aurrera egiteko ere dirua behar dela, eta horretarako saldu egin behar da.

**Zaila da zuen lana kalera-tzea, gizarteratzea?**

Toki batzuetan hasi dira arteaz interesatzen, baina zaila da jendearen arreta piztea. Erakusketak horretarako bide onak dira.

## LABUR

### Igerilekuek udako ordutegia izango dute zapatuan hasi eta abuztua bukatu arte

Hauxe da udako ordutegia: ekainean eta uztailean, 09:00etatik 21:00etara astelehenetik egubakoitzera eta 10:00etatik 20:00etara zapatu, domeka eta jaiegunetan. Abuztuko astelehenetan itxita egongo da eta gainerako egunetan zabalik 10:00etatik 20:00etara.

### Euskal arkitektoen kolegioak 'Maila oneko saria' eman dio Arantzazuko basilikari

Frantziskotarrek saria jaso dute Euskal Arkitektoen Kolegioaren eskutik. Arantzazuko basilikarekin abangoardiako arkitekturen zaintzen eta zabaltzen jakin dutelako eman diete. *Maila oneko saria* du izena sari honek eta Erdi Aroko nibel txiki baten irudia da. Sari Arantzazuko nagusiak jaso zuen frantziskotarren izenean, Telesforo Zuriarrainek. Aurten 50 urte beteko ditu basilikak.

## SAN JUAN BEZPERA

### Aurten ez dute San Juan surik egingo

O.E.


Aurten ez dute San Juan surik egingo Olaiturrin. Ez, behintzat, gaurtik San Juan bezpera bitartean talde, elkarte edo partikularren batek antolatzen eta egingen ez badu.

Azken urte hauetan Laixan elkarteak hartu izan du San Juan sua antolatzeko ardura. Olaiturrin egin izan dute sua, dantzariekin batera urteko gau motzerna girotz. Baina aurten Laixanek ez du San Juan surik

antolatuko. Udalak ere berak bere kasa San Juan surik egingo asmorik ez duela esan du. Beraz, aurten ez da San Juan surik egingo Olaiturrin, herriko talde, kolektibo edo elkarteren batek gaurtik San Juan bezpera bitartean egingo ez badu esaten berak antolatuko eta egingo duela.

#### LARRAIN GAIN ELKARTEAN BAI

Larrain Gain elkarteak, berriz, iragarri du San Juan sua egingo dutela ekainaren 23an. 25 urte dituen aurten elkarteak.



Olaiturrin egingen hasi aurretik, plazan egingen zuten San Juan sua.

## 2005eko UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

### Eskaintza:

EUSKALDUNTZE maila guztiak, ALFABETATZE, EGA eta HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK.

### Erritmoak:

Egunean 4 edo 5 ordu.

16 urtetik gorakoentzat.

### Ikastaroaren iraupena:

Ekainaren 28tik uztailaren 22ra arte.

### Bulego ordutegia:

Goizez: 08:30-12:30 € Arratsaldez: 14:30-18:30.  
Ostiraletan: 08:00-15:00.

## 2005-06 IKASTURTEKO AURREMATRIKULA ZABALIK

### Matrikulaldia:

Ekainaren 13tik 24ra arte.

## Erantzuna Udal Euskaltegian

23 urte / 43 zentro /  
maila guztiak /  
Ordutegi zabala /  
Bekak / HABEko diplomak ...



HABEren dirulaguntza.

**BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA**  
Zabalotegi, 13 | 20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 44 53  
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net  
berg.euskudal@euskalnet.net



www.udaleuskaltegiak.net

# IKASTURTE BUKAERA



San Martin Agirre

**K**urtsoa bukatzean dagoen honetan, tarte hau, denoi opor ederrak opatzeko aprobetxatu nahi dugu eta bide batez "Euskal Astea"-ren berri emateko.

Hainbat ekintza burutuko ditugu euskararen erabilera areagotzeko eta ikasleak, Euskal Kultura ezagutuz gure herriko eragile zuzenak izatera bultzatzeko.



## EGITARAUUA

Ekainak 17: Txupinazoa, Pregoia, Horma-irudiak.

Ekainak 20: Jaialdia.

Ekainak 21: Pilota Txapelketako finalak.

Ekainak 22: Jolas tradizionalak.

Ekainak 23: Euskal dantzak.

Ekainak 24: Txangoa.



SAN MARTIN  
BERGARAKO

IPINTZA  
IKASTETXE

M. ALTUNA  
PUBLIKOAK



PROFESIONAL  
*liberalen*  
GIDA

**GESTORIAK**

*EGUREN*

Iraila 3. 943-76 21 65

**PROKURADOREAK**

**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**

Easo 57, 3-esk. (DONOSTIA).  
943 45 27 26 / 656 41 55 49

**AHOLKULARITZA**

**AIERDI AHOLKULARITZA**

Artekalea 1. 943 76 03 50

**TBG AHOLKULARITZA**

Matxiategi 36. 943 76 90 83

**ABOKATUAK**

**RAFAEL ARANBURU**

Irizar 5. 943 76 10 81

**BERNARDINO MAIZTEGI**

Irizar 5. 943 76 10 81

**JUAN ANTONIO SIERRA**

Irizar 2. 943 76 03 35

**ARKITEKTU TEKNIKOA**

**JESUS LASKURAIN PEREZ**

Zurradero 4. 943 76 53 53